

# Onarpenik eza

## 1

1492. urtean, Cristóbal Colónek mendebaldera iristeko ekialderantz nabigatzea proposatu zuen. Orduan, ez zen onartzen Lurra biribila zenik. Zure ustez, zer entzungo zuen maizago Colónek?

- ☐ Erotuta zaude! Hori ezinezkoa da...
- ☐ Baina zer irakurri duzu hori pentsatzeko?
- ☐ Ideia bikaina! Probatu dezagun berehala.
- ☐ Uste dut arrazoi duzula; saiatu egin behar genuke.
- ☐ Txantxetan ari zara? Hori da irudimena zurea!

- Nola uste duzu sentitzen zela Colón?

- Uste duzu bere ahalegina bertan behera utzi zuela? Zer egingo zenukeen zuk?

## 2

Idatzi esaldi bat Colóni adore emateko.

© Palabras Aladas, SL, 2017

Material fotokopiagarria.

## 3

Irakurri Emoziotegiko 56. orrialdeko testua, eta idatzi **E (egia)** edo **G (gezurra),** dagokionaren arabera.

- ☐ Ez-onartuak sentitzen gara norbaitek ulertzen ez gaituenean.
- ☐ Onartua sentitzeko, besteen iritzi bera izan behar duzu.
- ☐ Onarpenik eza zure mundu-ikuspegiaren eta besteenaren arteko desberdintasunetik dator.

## 4

Begiratu ereduari, eta osatu.

- adostasun + eza = adostasunik eza
- babes + eza = ..........................................
- .................................. + eza = maitasunik eza
- .................................. + eza = konfiantzarik eza

## 5

Zer da **adostasunik eza**? Aukeratu egokiena iruditzen zaizun definizioa.

- ☐ Bi alderen artean erabateko adostasuna ez lortzea. Banatzea.
- ☐ Desordena.
- ☐ Haserretzea. Neurriz kanpoko zerbait egitea.

- Orain, adierazi definizio horietatik zein dagozkien hitz hauei.

neurririk eza → ______________________________

ordenarik eza → ______________________________

## 6

Inguratu **adostasunik eza** ondo erabili den esaldia. Gero, erabili 5. ariketako hitzak beste bi esaldiak zuzentzeko.

- Gela hartan adostasunik eza nabarmena zen: ezer ez zegoen bere lekuan.
- Gizon horren dietan adostasunik eza agerikoa da: beti jaten du behar baino gehiago.
- Gaurko bileran adostasunik eza izan da nagusi: ez dugu ezer erabakitzerik lortu.

______________________________

______________________________

## 7

Azaldu hiru pertsona hauei zer den katu bat.

- Laidak ez daki zer den katu bat, baina badaki txakur bat zer den.

______________________________

______________________________

- Joanesek ez du inoiz animaliarik ikusi.

______________________________

______________________________

- P34X estralurtar bat da, eta zu zara harekin topo egin duen lehenengo bizidun lurtarra.

______________________________

______________________________

© Palabras Aladas, SL, 2017

Material fotokopiagarria.

## 8 Irakurri egoera hau, eta egin gogoeta galderei erantzuteko.

Martin oso haur lagunkoia da. Ondo pasatzen du lagunekin, kirola egitean, taldean jolasean… baina gehien gustatzen zaiona balleta da. Ez dio inori esan. Gabonen aurretik, Martinek eskolako ballet-emanaldia ikustera joan nahi du, baina aitak uste du askoz hobea dela bola-jokoan aritzera joatea, hori baita Martinen jolasik gogokoenetako bat.

- Zein da Martinen jarduera gogokoena?

- Martinen aitaren ustez, zein da semearen jarduera gogokoena?

- Zer egingo zenuke zuk Martinen egoeran bazeunde? Esango zenioke aitari *balleta* ikustera eramateko? Zergatik?

- Zer gerta liteke Martinek ez badu ezer esaten?

© Palabras Aladas, SL, 2017

Material fotokopiagarria.

**9** Osatu taula hau. Gero, eskatu lagunen bati edo senitartekoren bati beheko taula hau osa dezala zuri buruz dakiela uste duenarekin.

| Honelakoa naiz | |
|---|---|
| Hau jatea gustatzen zait: | |
| Honek beldurtzen nau: | |
| Hau gustatzen zait: | |
| Honek nazka ematen dit: | |
| Honek ondo pasarazten dit: | |
| Honek aspertu egiten nau: | |
| Honek lotsarazi egiten nau: | |

| Honelakoa da _______________ | |
|---|---|
| Hau jatea gustatzen zaio: | |
| Honek beldurtzen du: | |
| Hau gustatzen zaio: | |
| Honek nazka ematen dio: | |
| Honek ondo pasarazten dio: | |
| Honek aspertu egiten du: | |
| Honek lotsarazi egiten du: | |

- Begiratu zertan ez zatozten bat, eta gogoan izan. Hala, zailagoa izango da onarpenik ezean erortzea.

© Palabras Aladas, SL, 2017

Material fotokopiagarria.

# Onarpenik eza

## OHARRAK

Emoziotegiko jarduera-fitxak *Esan zer sentitzen duzun* ibilbidearen parte dira. Ibilbideari buruzko informazio gehiago lortzeko eta fitxa gehiago eta beste material batzuk ikusteko, mesedez, sartu helbide honetan: http://www.palabrasaladas.com/f/emo_eus.html.

© Palabras Aladas, SL, 2017

Material fotokopiagarria.